



**23/2003 GOMENDIOA, IRAILAREN 9KOA, GETXOKO UDALARI EGINA, KEXAGILEARI JARRI ZION ZIGORRA ETA HURA BETEARAZTEKO PREMIAMENDU PROZEDURA BALIORIK GABE UTZ DITZAN.**

**Aurrekariak**

1. Kexagileak laguntza eskatu zigun, Getxoko udalak baliorik gabe utz zezan trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren araudia hausteagatik berari jarri zion diru-zigorra, (...) zenbakiko zigor prozeduran. Interesdunak kexan zioenez, ez zuen prozeduraren berri izan, ezta berorretan jarritako zigorrarena ere, zigorra derrigorrez betearazteko premiamendu bidea hasi zen arte. Haren esanean, udalak ez zizkion legez jakinarazi ez prozeduran burutzen diren egintzak, ez azken ebazpena ere.
2. Arretaz aztertu genituen Getxoko udalak gure eskariei erantzunez bidalitako informazioa eta zigor prozedurari zegokion administrazio-espeditarearen kopia. Horrela egiaztatu ahal izan genuen udalak ofizioz hasi zuela prozedura, eta jarduera hori eta prozeduran hartutako zigor-erabakia ediktu bidez jakinarazi zirela, izan ere, jakinarazpenen arduradunak, alegia, Correos y Telégrafos-ek bidalitako langileak ez zuen inor aurkitu interesdunaren bizilekuan, hari jakinarazpena zuzenean egiten ahalegindu zenean.

Erakunde honen ustez, ordea, jarduera horien ediktu bidezko jakinarazpena ez zen baliozkoa izan, bada jakinarazpen pertsonal horiek burutzean ez ziren bete azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.2 artikuluan ezarritako baldintzak - urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak egindako aldaketaren ondoren-, hartzailea ez etxean ez dagoenean, jakinarazpenak behar bezala saiaturik egin direla ulertu dadin, eta, horren ondorioz, ediktu bidez jakinarazi ahal izan daitezkeen. Lehen aipatu ditugun akatsek bi jakinarazpen-ahaleginak egin ziren orduekin dute zerikusia, batik bat. Prozedura hasteko egintzari buruz, gure iritzian, bigarren ahalegina lehenengoaren ia-ia ordu berean burutu zen, bien artean hamar minutuko aldea besterik ez baitzen izan; eta zigorrari buruz, udalak bidali zigun administrazio-espeditarearen kopia aztertuz ez genuen egiaztatzerik izan lehen ahalegina zehazki zein ordutan egin zen, ezta ere legezko baldintzak bete ziren ala ez.

Gainera, eskuratu ziguten administrazio-espeditarearen kopiak ere ez zuen ziurtatzen interesdunari bere postontzian bigarren jakinarazpen-ahalegin ustel horren abisurik utzi ziotenik -jakinarazpena noiz eta non jaso zezakeen eta



bigarren ahalegin horren gaineko zertzeladak adieraziz-; era berean, ez zuen ziurtatzen jakinarazpena Correos-en zerrendan gorde zenik, abenduaren 3ko 1.829/1999 Errege Dekretuaren 42.3 artikulua agintzen duen bezalaxe, Correos y Telégrafos denean jakinarazpenak egiteko arduraduna. Aitzitik, espedientearen kopiak agerian jarri zuen jakinarazpenak ez zirela Correos-en zerrendan gorde.

Udalari helarazi genizkion gogoeta horiek, eta zera adierazi genion: zigor prozedurako jarduerak jakinarazteko moduan ikusi genituen akatsek - horiengatik, dirudienez, kexagileak ez zuen egintzen tramitazioaren berririk izan- zigorraren baliozkotasunean bertan zutela eragina, eta, akatsok egiaztatuko balira, zigorra baliorik gabe utzi beharko litzatekeela, gure ustez.

3. Gure balorazio horri erantzunez, udalak beste txosten bat bidali zigun, honako hau adierazteko:

*"...udalak erabiltzen duen jakinarazpen sistemaz, lehenago adierazi genuenez, enpresa izaerako erakunde publiko batek egiten ditu, 'Correos y Telégrafos' izenekoak. 4/1999 Legea eraldatu ondoren, udalak eraldaketa horrek zekartzan exijentziei erantzun nahi izan zien. Horretarako, aipatutako enpresa izaerako erakundearekin akordio berezia egin zen. Akordio horri esker, udalaren jakinarazpenak Administrazio Prozedura Erkidegoaren Legean ezarritako moduan egiten dira, eta honelako espedienteak orduan zuten preskripzio epeen premia kontuan izaten da. Beraz, 'zerrendan sartzea' kendu egin zen, baina 4/1999 Legean azaldutako sistema betez.*

*'Correos y Telégrafos' enpresa izaerako erakunde publikoaren 2000.04.25eko instrukzioaren kopian ikus daitekeenez, ezer heltzekotan destinatarioaren kutxatilan ohar bat utzi beharra ez zen aplikatu behar honelako akordio berezi bat sinatuz gero, 1829/1999 ED-an xedatutakoaren arabera.*

*'Correos y Telégrafos'ekiko akordio berezi hori indarrean dagoen arren, udalaren helburu nagusia hiritarrei arreta gero eta hobea ematea da. Horregatik, akordioa aldatu egin zen, emateko bi saiok eta gero administrazioaren jakinarazpenaren edukia interesatuaren postontzian uzteko. Uzten den jakinarazpenean ohartarazten da jakinarazpena*



*egiteko saio bi egin direla, eta horregatik postontzian utzi zaiola, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren bidez jakinaraziko zaiola"*

Erantzun horretan, udalak ez zigun inongo azalpen osagarririk eman hartzaileari zigorra zuzenean jakinarazteko lehen ahaleginaren orduaz.

### **Gogoetak**

1. Trafiko, ibilgailu motordun eta bide segurtasunari buruzko arauak hausteagatik bideratzen diren zigor prozeduretan, norberari postaz egindako jakinarazpenak alferrikakoak badira -kasu honetan bezalaxe-, interesdunaren bizilekuan haien kargu egiteko inor ez zegoelako, zenbait baldintza bete behar dira jakinarazpen horiek behar bezala saiatuta egin direla uler dadin. Baldintzok Ararteko erakundeak aztertu zituen, 2002 urteaz Eusko Legebiltzarrari egin zion ohiko txosteneko gomendio orokor batean. Izenburu hau zuen: *"Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak: jakinarazpenak behar bezala saiatuta egin direla ulertzeko baldintzak, jakinarazpena jaso behar duena ez dagoenean"* (454-461. orr.)

Gomendio hartan atera genuen ondorioa transkribatuko dugu jarraian, modu egokian laburtzen baitu erakunde honek gai horretaz duen iritzia, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak alor horretan egindako arau-aldaketan ondoren. Hauxe adierazi genuen orduan:

*"Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak behar bezala saiatuta egin direla ulertzeko, jakinarazpena jaso behar duen pertsonaren etxean haren kargu egiteko inor ez dagoenean, beharrezkoak dira honako baldintza hauek:*

*1. Jakinarazteko bigarren ahalegina, lehenengoa egin eta hurrengo hiru egunen barruan eta ordu desberdinean egitea; ordu desberdinean egiteak esan nahi du, une horretako errealtate soziala ere kontuan hartuta, ordu horretan aukerak egon daitezkeela -zentsuzko irizpideak jarraituta- interesdunari jakinarazpena eskura emateko.*

*2. Ardura handiz ahaleginu arren bigarren jakinarazpena egin ezin izan denean, jasotzailearen postontzian bigarren ahaleginaren abisua uztea,*



*eguna eta ordua adierazita, bai eta jakinarazpena non dagoen eta han noiz arte egongo den ere.*

*3. Jakinarazpen-ahalegin biak jasota uztea, egunarekin eta orduarekin batera, Correos-eko langilearen dokumentazioan eta jakinarazpenarekin batera doan hartu-abisuan; langileak bai dokumentu hori bai hartu-abisua sinatzea eta bere identifikazio-zenbakia jartzea.*

*4. Zehapen-prozedurari dagokion administrazio-espeditentean jasota utzi behar da eskakizun horiek bete direla".*

Gogora ekarri nahi dugu gomendioan bertan azaldutako legezko eta jurisprudentziako gogoetetan oinarritzen dela ondorio hori, eta testu hartara jotzen dugu.

2. Beraz, (...) zenbakiko zigor prozeduran -kexa eragin zuena- Getxoko udalak aurreko baldintza horiek bete ote zituen egiaztatu behar dugu. Horretarako, prozedura horri dagokion administrazio-espeditentearen kopian agertzen diren datuak hartu behar dira, nahitaez, abiapuntutzat. Jakina denez, udalak eskuratu digu kopia hori.

Agiri horrek egintzok egiaztatzen ditu:

- Zigor prozedura ofizioz hasi zen, 2000ko martxoaren 2ko Alkatetza Dekretuaren bidez.
- Prozeduraren hasiera interesdunari zuzenean jakinarazteko ardura Correos y Telégrafos-i eman zion udalak. Correos-ek bi ahalegin egin zituen interesdunaren bizilekuan, martxoaren 9an eta 13an, 13:50ean eta 13:40ean, hurrenez hurren. Bi ahaleginak alferrik izan ziren, hartzailea etxean ez zegoelako.
- Udalak Bizkaiko Agintaritza Aldizkarian argitaratuz burutu zuen jakinarazpena.
- Prozeduran hartutako zigor-erabakia hartzaileari zuzenean jakinarazteko ardura ere Correos y Telégrafos-i eman zitzaion. Halaber, interesdunaren bizilekuan egindako bi ahaleginak -2000ko



ekainaren 21ean eta 26an- alferrak izan ziren, orduan ere hartzailea etxean ez zegoelako.

- Udalak Bizkaiko Agintaritzak Aldizkarian argitaratuz burutu zuen erabaki horren jakinarazpena.
- Bi jakinarazpen horiek, bigarren ahalegin ustelaren ondoren, ez ziren Correos-en zerrendan gorde.

Administrazio-espedientearen kopiaz baliatuz ezin da egiaztatu, ordea, zigor prozeduraren hasiera eta bukaera hartzaileari zuzenean jakinarazi behar zion erakundeak, Correos-ek alegia, jakinarazteko bigarren ahalegin ustelaren abisua kexagilearen postontzian utzi zuen -egin behar den moduan- ala ez. Halaber, ez dago egiaztatzerik zigor erabakia interesdunari jakinarazteko lehen ahalegina zein ordutan egin zen, bada, lehen adierazi dugunez, kontu hori ez da behar bezain argi azaltzen jakinarazpenaren hartu-abisuan.

Gainerakoan, udalak ez digu informazio osagarririk eman lehen jakinarazpena egiten saiatu zireneko orduaz.

3. Emandako datuak eta aipatu gomendio orokorraren edukia aintzat harturik, erakunde honek uste du ez zirela legeak eskatutako baldintzak bete kexa hau sortarazi zuen zigor prozedura hasi eta bukatzeko erabakiak kexagileari bere bizilekuan jakinarazteko orduan. Hara zergatik: prozedura hasteko erabakia jakinarazteko bigarren ahalegina lehenengoaren ia ordu berean egin zelako -bi ahaleginen arteko aldea hamar minutukoa baino ez zen izan-; zigorra jakinarazteko lehen ahalegina zein ordutan egin zen benetan egiaztatu ez delako; eta, azkenik, bi egintzen jakinarazpen ustelak Correos-en zerrendan gorde ez zirelako, eta ez delako egiaztatu bigarren ahalegin alferraren abisua interesdunaren postontzian utzi zen -egin behar den moduan- ala ez.

Hala ere, aurrekarietan nabarmendu dugunez, Getxoko udalaren iritziz, azken betekizun hori ez zitzaion ezarri behar aztertzen ari garen kasuari, jakinarazpena Correos y Telégrafos-ekin sinaturiko hitzarmen berezi baten babesean egin zelako, eta adierazten denez, 2000ko apirilaren 25eko instrukzioak ez duelako agintzen kasu bereziotan bigarren ahaleginaren abisua utzi behar denik.



Ez gatoz bat iritzi horrekin. Gure azterketaren oinarritzat hartu dugun gomendio orokorrean adierazi genuen bezala, udalak aipaturiko instrukzio hark parekatu egin zituen jakinarazpenen araudi orokorra eta erakundeen arteko hitzarmenen mende dagoen araudia, besterik ez (araudi orokorrari buruz, Correos-en Zuzendaritza Nagusiaren 1999ko maiatzaren 25eko Erabakiak ez zuen exijitzen jakinarazpena iritsi zela abisatu beharra; eta instrukzio hark aldatu egin du erabaki horren zati bat). Instrukzio hark, bere azalpen zatian adierazten denez, helburu jakin bat zuen: lehendik zeuden instrukzioak abenduaren 3ko 1.829/1999 Errege Dekretuak 42. artikuluan finkatutako araudi berrira egokitzea. Artikulu horren arabera, beti bete beharra dago baldintza hori, norberari jakinarazteko bigarren ahalegina alferrikakoa izan bada.

Orduan, gure ustez, ez dute baliorik kexa eragin zuen zigor prozeduran burutu diren ediktu bidezko jakinarazpenek, eta horiek baliorik ez badute, kexagileari prozeduran jarri zioten zigorrak ere ez, ezta zigor hori betearazteko bideratu zen premiamendu prozedurak ere.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak - erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **23/2003 GOMENDIOA, irailaren 9koa, Getxoko udalari egina**

Baliorik gabe utz dezala (...) zenbakiko zigor prozeduran kexagileari ezarritako zigorra, baita zigorra betearazteko bideratu zen premiamendu prozedura ere; eta interesdunak zigorra betetzeko kopururik ordaindu bazuen, itzul diezaiola kopuru hori.